



Iñaki Zorrakinek marraztutako muxar grisa (*Glis glis*), 2002 ©

DIBULGAZIO-EKINTZEN EGITARUA

2013



OTSAILA

Mendi-lilipak

9, larunbatetik 11, astelehenera



“Xavier de Arizaga” belartegi digitalaren ohiz kanpoko irteera-aldi honetan, Mantxara eta Morena mendizerrara mendi-lilipa espezie ugari ikustea, determinatzea eta horiei argazkiak ateratzea espero dugu.

Aretxabaletan habi-kutzak garbitu eta konprobatzea

24, igandea



Ohi bezala, “La Dehesa”ko erkameztira hurbilduko gara, Iñaki Zorrakin irudigile eta bazkidearen oroimenez eta ohorez. Bertan txori intsektujaleek habia egitea errazteko asmoz zintzilikatutako habi-kutzak garbituko ditugu eta konprobatuko.

MARTXOA

Xavier de Arizaga belartegi digitala

1, ostirala



Gure inguruko landare espezieak identifikatzeko eta horiei argazkiak ateratzeko mintegia. Lehen bilera honetan sortzen den mintegiko kideek gero har dezakete parte urtean zeharko irteeraldietan, apiriletik irailera arte. Belartegi digitalean jasoko dira argazkiak informazio taxonomiko, geografiko eta ekologikoarekin. Lehenengo aldiz parte hartu nahi dutenak ongi etorriak izango dira. Ikusi belartegiaren garapena [ANIren web-gunean](#).

MAIATZA

Arabar Errioxako hegaztiak

11, larunbata



Arabar Errioxako eskualdeak Euskal Autonomia Erkidegoan beste inon aurkitzen ez diren hegazti-espezie mediterranearrak biltzen ditu. Maiatza da hilabeterik egokiena, besteak beste, txoriandre arrunta, buztanzuri horia, kalandria arrunta edo zozo-txinboa behatzeko eta hegazti horiek identifikatzeko ezaugarriak ikasiz joateko.



12A/02

Iñaki Zorrakinek marraztutako eguzki-lorea (*Carlina acaulis*). ©

Naturari begira marrazki-sintesiaren bidez

19, igandea



Paisaia aldetik interesa duen ingurune natural batera egingo den txangoa: geldiuneak izango dira hiru marrazketa-ariketa simple burutzeko. Marrazteko orduan alde aurretiko ezagutzarik ez da behar. Helburua zera da: paisaia ulertzen duen begiratu ernea piztea, erregistro grafikoaren bidez informazioa jasotzeko. Bai profesionalentzat eta natura-zientzietan interesaturik dauden ikertzaileentzat, bai oro har naturan interesa duen edozeinentzat balio dute ariketok.

Gorbeia Parke Naturala

25, larunbata



Aurreko urteetako jokabideari jarraituz, aurten ere Autonomia Erkidegoko naturgune batera egingo dugu bisitaldia. Urigoitik Itxinara igoko gara, Gorbeia Parke Naturalaren Bizkaiko zatiaren balore naturalak ezagutzeko asmoz.

EKAINA

Tximeletak, bioadierazle. Armentia basoan zehar irteera praktikoa

9, igandea



Tximeletak bioadierazle gisa erabil daitezke. Batez ere, klima eta landaretzarekiko duten sentikortasuna dela-eta. Helburu honekin, 2008an Erropalozeroen jarraipena egiteko programa bat abian jarri zen EAEn. Irteera honetan Armentia basotik murgiltzen den transektu batean proiektu honen nondik norakoak eta metodologia ezagutuko ditugu eta, bide batez, bertako tximeletarik arruntenak ere bai.

URRIA

Hegaztien eguna: Obarenes mendilerroa txango ornitologikoa

5, larunbata





Obarenes mendilerroak Ebro ibarra eta La Burebako lurak bereizten ditu. Mendi-faunarentzat Pirinioetako eta Kantabriar mendikateko esparru biogeografiko handiak lotzen dituen altuera ertaineko mendizarren zati bat da mendilerro hori. Hainbat hegazti-espeziek, hala nola ugatzak, Bonelli arranoak eta eper grisak, populazioak bertan zituen, baina XX. mendean zehar desagertu dira horiek. Humi6n (1.435 m) moduko tontorretara igotzen diren mendi-sastrakak eta azaleratzen diren haitzak batere ugari ez diren zenbait espezieren habitata dira: mendi-txirta, etze-txinboa, harkaitz-zozoak, belatxingak... Egun egokietan migrazioan ari diren harrapakariak, ur-hegaztiak eta bestelako txoriak behatzeko aukera dago.

Natura-argazkiak nola atera

18, ostirala



Zure natura-argazkiak (ugaztunak, hegaztiak, narraztiak, intsektuak eta loreak) nola hobetu: irudiez ilustratutako hitzaldia. Honako gai hauetaz hitz egingo da, besteak beste: erabili beharreko lenteak, tripodeak eta kabezalak, sostengu bereziak eta iragazkiak. Landa-lana egiteari begira honako gai hauek ere jorratuko dira: loreak eta landarediak, animale basatiei argazkiak nola atera, nola ezagutu, izkutalekuak edo *hide*-ak, *hide*-a nola eraiki, nola erakarri animaleak, maite dituzten lekuak eta gordeiatzekoak, paseriformeentzako eta haratusteljaleentzako jan-lekuak, edateko guneak eta uhaskak eta, azkenik, paisaiei nola atera argazkia.



Irudigilea: Iñaki Zorrakin (1961-2004). ANIren hasiera-urteetan zeregin handia bete zuen. Prestakuntzaz biologoa izanik, txikitatik irudigilea ere izan zen. Heldutan, naturari buruzko irudi asko egin zituen urte gutxitan era guztietako argitalpenetan. Bera zen, hain zuzen, urteko programa hau ilustratzeko ohiturari hasiera eman ziona.

Ekintza bati buruzko argibide zehatzak eskuratzeko eta izena emateko (gutxi gorabehera hilabete bat lehenagotik):

- webgunean sartu (www.ian-ani.org) (ikus *Hurrengo ekintzak* hasiera-orrrian edo *Ekintzak* atala; izena emateko orria ekintza bakoitzaren deskribapenaren bukaeran dago); lehenesten dugun bidea
- 945 246606 telefonora deitu edo
- gure egoitzara jo (UNED eraikina, Pedro Asua, 2-3.a; bisitarienezako ordutegia: ostiraleko 19:00etatik 20:30etara, jai-egunetan, -zubietan eta -bezperetan izan ezik).

Egitarauaren edukiak eta datak aldatu ahal izango dira; edozein modutan ere, aldaketok webgunean garaiz jakinaraziko dira. Ekintzak oro har gaztelaniaz burutuko dira. Guri idazteko, erabil ezazu webgunearen *Harremana* atalean dagoen datu-orria.

Vital Kutxaren Gizarte Ekintza, laguntzaile:



*Beharrezkoa ez bada, EZ inprimatu mesedez.
Institutuko web-gunean (Ekintzak/egitaraua) inprimatzeko egokia den bertsio zuri-beltz
laburtua duzu eskueran.*